AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**CONCURSO ESPECÍFICO**

***BERARIAZKO LEHIAKETA***

**ERMUA HIRIKO UDALA**
**IRAGARKIA**

**AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA**
**ANUNCIO**

*Alkatearen EBAZPENA, 2016ko irailaren 1ekoa, 2016ko maiatzaren 3an Udalbatzarrak eginiko Osoko Bilkuran hartutako erabakia betez emanikoa, Hiritarren Segurtasun Alorreko Zuzendari lanpostua berariazko lehiaketa eta izendapen askeko sistemaren bidez ondorengo oinarrien arabera hornitzeko deialdi publikoaren berri ematen duena.*

RESOLUCIÓN de Alcaldía de 1 de septiembre de 2016 por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión, por el sistema de concurso específico, y nombramiento de Libre Designación del puesto de Director/a del Área Seguridad Ciudadana, según acuerdo del Pleno del día 3 de mayo de 2016, y con arreglo a las siguientes bases.

***LEHIAKETA ESPEZIFIKO SISTEMAREN BIDEZ LANPOSTUAK HORNITZEKO OINARRI-ARAU OROKORRAK.***

**BASES GENERALES PARA LA PROVISIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO MEDIANTE EL SISTEMA DE CONCURSO ESPECÍFICO.**

***Lehena. HELBURUA.***

*Oinarri-arau hauen helburua da, Euskal Funtzio Publikoari buruzko, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46. artikuluko baldintzen babespeko izendapen askeko berariazko lehiaketa bidez, Ermuko Udaleko lanpostuen zerrendan hutsik dagoen ondorengo lanpostua hornitzeko deialdia egitea.*

**Primera. OBJETO.**

Es objeto de las presentes Bases la convocatoria, mediante concurso específico de libre designación, al amparo de las prescripciones del art. 46 de la ley 6/1989, de 6 de julio, de la función pública vasca, para la provisión del siguiente puesto de trabajo, que se encuentra vacante en la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Ermua.

***Bigarrena. LANPOSTUAREN IZENA ETA DESKRIBAPENA:***

*Hiritarren Segurtasun Alorreko Zuzendaria*

**Segunda. DENOMINACIÓN Y DESCRIPCIÓN DEL PUESTO.**

Director/a del Área de Seguridad Ciudadana.

***Hirugarrena. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZAK.***

*Berarizko lehiaketa honetan parte hartzeko honako baldintzak bete beharko dira:*

*a) Toki Administrazioetako karrerako funtzionario izatea: Administrazio Bereziko Eskalako Zerbitzu Berezietako Azpi-eskalako Toki Polizia motakoa, edota Ertzaintza edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidekoetako karrerako funtzionario izatea.*

*b) Lizentziatu edo graduko titulua edo baliokidea izatea.*

**Tercera. REQUISITOS Y CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN.**

Podrán participar en el presente concurso específico quienes reúnan los siguientes requisitos:

a) Ser funcionario/a de carrera de las Administraciones Locales perteneciente a la Escala de Administración Especial, Subescala de Servicios Especiales, Clase Policía Local; ser funcionario/a de carrera de la Ertzaintza o de las Fuerzas o Cuerpos de Seguridad del Estado.

b) Tener la titulación académica de licenciatura, grado o equivalente.

*c) Euskarako 4. HE, derrigortasuna-datarik gabea.*

*d) Zerbitzu aktiboan edo seme-alabak zaintzeko eszedentzian egotea, edo zerbitzu bereziak ematen.*

*e) Halaber, lehiaketan parte hartu ahal izango dute, prozedura honen bidez zerbitzu aktibora itzulita, nahitaezko eszedentzian daudenak, beste Administrazio Publiko batzuetan daudenak eta zerbitzua beraien borondatez etendakoak eta borondatezko eszedentziadunak, betiere halako egoeretan ezarritako iraute-aldia beteta badute.*

***Laugarrena. ESKABIDEAK AURKEZTEA.***

*Oinarri-arauok eta berauen eranskinak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Deialdi honetatik eratortzen diren gainerako iragarkiak Ermuko Udalaren web orrian argitaratuko dira. (www.ermua.es)*

*Eskabide-orriak eta erantsi beharreko dokumentuak oinarri-arauotako eranskinean argitaratzen den ereduaren arabera aurkeztuko dira Ermuko Udaletxeko erregistro orokorrean, 20 egun naturaleko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.*

***Bosgarrena. BALORAZIOA***

*Merezimenduak ondorengo kideez osatutako balorazio batzorde batek baloratuko ditu:*

*- Batzordeburua.*

*- Hiru batzordekide: A1 taldeko goi mailako teknikari diren karrerako funtzionarioak edota buruzagitza lanpostuak betetzen dituzten karrerako funtzionarioak.*

*-Idazkaria: Udal idazkaria edo berak*

c) PL4 de euskera, con carácter no preceptivo.

d) Hallarse en servicio activo o en excedencia por cuidado de hijos o en servicios especiales.

e) Asimismo podrán concurrir reingresando al servicio activo a través de este procedimiento, quienes se encuentren en situación de excedencia forzosa, en servicio en otras Administraciones Públicas y los suspensos y excedentes voluntarios, siempre que hubieran cumplido el tiempo de permanencia establecido para tales situaciones.

**Cuarta. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.**

Las presentes bases así como sus anexos se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia. Los sucesivos anuncios que se deriven de la presente convocatoria se publicarán en la página web del Ayuntamiento de Ermua. (www.ermua.es)

Las solicitudes se presentarán junto a la documentación a adjuntar, conforme al modelo que se publica en el Anexo de estas bases, en el Registro General del Ayuntamiento de Ermua, dentro del plazo de 20 días naturales contados a partir del siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**Quinta. VALORACIÓN.**

Los méritos serán valorados por una Comisión de Valoración compuesta por las siguientes personas:

- Un/a Presidente/a.

- Tres Vocales: Técnicos/as superiores del grupo A1 funcionarios/as de carrera o funcionarios/as de carrera que desempeñen puestos de Jefatura en cualquier policía.

-Secretario/a: Secretario municipal o

*izendatzen duen funtzionarioa.*

*Kide titular bakoitzeko ordezko bat izendatuko da, titularrak ez agertzea justifikatu ezkero, ahotsez eta botoz ordezkatuko duena.*

*Balorazio Batzordeko kideak alkatearen erabakiz izendatuko dira eta horien izenak udaletxeko web orrian argitaratuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan aurreikusitakoen ondorioetarako.*

*Balorazio Batzordean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen kopuru orekatua egon beharko da Balorazio Batzordeko ordezkaritza orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko organoetan %40ko ordezkaritza duenean gutxienez sexu bakoitzak, eta gainerako organoetan, berriz, sexu biak ordezkatuta daudenean.*

*Balorazio Batzordeak aholkulari espezialistak erabili ahal izango ditu, balorazioko edozein fasetan parte hartzeko. Kide horiek beraien espezialitate teknikoko aholkuak emango dituzte bakar bakarrik, eta haien txostenek eta iritziek ez dute Balorazio Batzordeak ematen dien balioa besterik izango.*

***Seigarrena. EUSKARA JAKITEA***

*Hautagaiek ESKABIDEAN bertan erantsi ahalko dute Hizkuntza Eskakizunaren ziurtagiria*

*Ziurtagiria ondorengo eskala honen arabera baloratuko da:*

*1HE: puntuazio osoaren %5*

*2HE: puntuazio osoaren %10*

*3HE: puntuazio osoaren %15*

*4HE: puntuazio osoaren %20*

funcionario/a a quien designe.

Por cada persona titular será designado/a un/a suplente que, en caso de ausencia justificada, le sustituirá con voz y voto.

La designación de las personas de la Comisión de Valoración se efectuará por resolución de la Alcaldía y se publicará en la página web del Ayuntamiento a los efectos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La composición de la Comisión de Valoración será equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. Se considera que existe una representación equilibrada cuando en los órganos de más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40%; en el resto, cuando los dos sexos estén representados.

La Comisión de Valoración podrá disponer la incorporación a sus trabajos de asesores/as especialistas para alguna de las fases de la valoración. Estas personas se limitarán al asesoramiento en sus especialidades técnicas, sin que sus informes u opiniones tengan otra validez que la que les otorgue la Comisión de Valoración.

**Sexta. CONOCIMIENTO DE EUSKERA.**

Los/as candidatos/as podrán acreditar, en la SOLICITUD, estar en posesión del perfil lingüístico de euskera.

Se valorará conforme a la siguiente escala:

PL1: 5% de la puntuación total.

PL2: 10% de la puntuación total.

PL3: 15% de la puntuación total.

PL4: 20% de la puntuación total

***Zazpigarrena. MEREZIMENDUAK***

***7.1 MEREZIMENDU OROKORRAK. (Gehienez 290 puntu)***

***Antzinatasuna (gehienez 60 puntu)***

*Honela baloratuko da: puntu 1 polizia lanpostu baten emaniko hilabete oso bakoitzeko, 60 puntura arte gehienez.*

***Lanpostua: (gehienez 120 puntu)***

*Buruzagi lanpostuetan, ofizial edo ofizialorde ekalan gutxienez aritzeagatik 6 puntu emango dira lanpostuan emaniko urte oso bakoitzeko edo horren zati proportzionala, 60 puntura arte gehienez.*

*Segurtasunarekin zerikusia duten enpresa pribatuetan zuzendari edo buruzagi lanpostuetan aritzeagatik 4,8 puntu emango dira lanpostuan emaniko urte oso bakoitzeko, edo horren zati proportzionala, 60 puntura arte gehienez.*

***Prestakuntza akademikoa (gehienez 110 puntu)***

*Zuzendaritza lanposturako baldintza denaz gain, ondorengo tituluetako bat edukitzea baloratuko da:*

- *Doktore titulua: 100 puntu*
- *Arkitekto, ingeniari edota lizentziatu titulua: 10 puntu.*

***7.2. BERARIAZKO MEREZIMENDUAK: (Gehienez 600 puntu)***

***Prestakuntza eta hobekuntza (gehienez 500 puntu)***

*Ondokoekin zuzenean lotutako formakuntza edo hobekuntza ikastaroak eman edo jasotzeagatik:*

*.- Giza-baliabideen arloko masterra edo unibertsitate-aditua: 100 puntura arte.*

*.- Kudeaketa publikoaren arloko masterra edo unibertsitate-aditua: 100 puntura arte.*

**Séptima. MÉRITOS**

**7.1 MÉRITOS GENERALES (máximo 290 puntos)**

**Antigüedad: (máximo 60 puntos)**

Se valorarán a razón de 1 puntos por mes completo de servicios en un puesto de policía hasta un máximo de 60 puntos.

**Puesto de trabajo: (máximo 120 puntos)**

Por haber desempeñado puestos de Jefatura, al menos en la escala oficial o suboficial, se valorará con 6 puntos por año completo o su parte proporcional hasta un máximo de 60 puntos.

Por haber desempeñado puestos de dirección o jefatura en empresas privadas en relación con la Seguridad, 4.8 puntos por año completo o su parte proporcional hasta un máximo de 60 puntos.

**Formación académica: (máximo 110 puntos)**

Se valorará estar en posesión de alguno de los siguientes títulos, al margen del exigido como requisito para el puesto de dirección.

- Título de Doctor/a : 100 puntos
- Título de Licenciado/a, arquitecto/a o ingeniero/a : 10 puntos.

**7.2. MÉRITOS ESPECÍFICOS (Máximo 600 puntos)**

**Formación y perfeccionamiento: (máximo 500 puntos)**

Por haber impartido o realizado formación directamente relacionada con:

.- Máster o Experto/a universitario en Recursos Humanos. Hasta 100 puntos.

.- Máster o Experto universitario en Gestión

*.- Kalitate-kudeaketaren arloko masterra edo aditua: 100 puntura arte.*

*.- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko masterra edo aditua: 100 puntura arte.*

*Aditu edo master tituluan bildutako ikastaroak unitate bakarrean eta behin bakarrik baloratuko dira; ezingo dira bi aldiz baloratu, nahiz eta ondoren zehazten diren ikastaroekin hitzez hitz bat etorri.*

*Formakuntza- ikastaroak*

- *Kudeaketa publiko edo zuzendaritza publiko profesionalarekin zerikusia duten ikastaroak: 10 puntura arte*
- *Lidergoarekin zerikusia duten ikastaroak: 10 puntura arte.*
- *Berrikuntza eta modernizazioarekin zerikusia duten ikastaroak: 10 puntura arte.*
- *Adimen emozionalarekin zerikusia duten ikastaroak: 10 puntura arte*
- *Lan-taldeen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak: 10 puntura arte.*
- *Herritarren parte-hartzearekin zerikusia duten ikastaroak: 10 puntura arte.*
- *Erakunde publikoen sareen kudeaketarekin zerikusia duten ikastaroak: 10 puntura arte.*
- *Kudeaketa publikoaren etikatik eratorritako izaera publikoko balore instituzionalekin zerikusia duten ikastaroak: 10 puntura arte.*
- *Kalitate edo bikaintasunarekin lotutako ikastaroak: 10 puntura arte.*
- *Lan arriskuen prebentzioarekin lotutako ikastaroak.*

*Ikastaro bakoitza 10 ordukoa izango da gutxienez. 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroa denean, balorazioa proportzionala izango da ordu-kopuruaren arabera. Prestakuntzaren iraupen-orduak egiaztatu ezean, gutxieneko puntuazioa emango zaio ikastaroari: puntu 1.*

Pública. Hasta 100 puntos.

.-Máster o Experto en gestión de calidad. Hasta 100 puntos.

.- Máster o Experto en prevención de riesgos laborales. Hasta 100 puntos.

Los cursos contenidos en el título de experto o máster se evaluarán en dicha unidad y por una sola vez sin que puedan ser valorados dos veces a pesar de que coincidan en su literalidad con los cursos que se expresan a continuación:

Cursos formativos:

.- Cursos relacionados con la Gestión pública o Dirección pública profesional. Hasta 10 puntos
.- Curos relacionados con el liderazgo. Hasta 10 puntos
.- Cursos relacionados con la Innovación y modernización. Hasta 10 puntos
.- Cursos relacionados con la inteligencia emocional. Hasta 10 puntos
.- Cursos relacionados con la gestión de equipos de trabajo. Hasta 10 puntos
.- Cursos relacionados con la participación ciudadana. Hasta 10 puntos
.- Cursos relacionados con la gestión de redes de organizaciones públicas. Hasta 10 puntos.
.- Cursos relacionados con los valores institucionales de carácter público derivados de una ética de la gestión pública. Hasta 10 puntos.
.- Cursos relacionados con la calidad o la excelencia. Hasta 10 puntos
.- Cursos relacionados con la prevención de riesgos laborales. Hasta 10 puntos.

En todos estos cursos formativos se requerirá un mínimo de 10 horas. Caso de que fuera inferior a las 10 horas la calificación será proporcional al número de horas. En el caso de no acreditar las horas de duración de la formación, ésta se valorará con la puntuación mínima: 1 punto.

***Hurrengo bost urteetan lanpostu horretako lanaren planifikazioari buruzko memoria edo proiektua (Gehienez 100 puntu)***
*Meritu hori aurkeztu nahi den kasuetan "oinarrien araberako beste merituak" izeneko atalean goiko izen hori bera jarriko da.*

*Balorazio Batzordeak data bat proposatuko dio hautagaiei meritu horren aurkezpena egin dezaten.*

*Lehiaketa osoan lortu behar den **gutxienezko puntuazioa**: 400 puntu.*

**Memoria o proyecto de planificación del trabajo en ese puesto en el próximo lustro. (Máximo 100 puntos).**

Se enunciará, con ese mismo nombre, en la solicitud en el apartado "Otros méritos según las bases" cuando se desee presentar este mérito.

La Comisión de Valoración propondrá una fecha a los/as candidatos/as para la presentación y defensa de este mérito.

**Puntuación mínima** a obtener en todo el concurso: 400 puntos.

***Zortzigarrena. BALORAZIO BATZORDEAREN PROPOSAMENA.***

*Puntuazio osoa horietako bakoitzean lortutako puntuazioen batuketaz lortuko da. Balorazio Batzordeak lehentasun-ordena bat proposatuko dio deialdia egin duen organoari, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/7989 Legearen 46. artikuluko baldintzen babespean izendapen askeko sistemaren bitartez erabakia har dezan.*

**Octava. PROPUESTA DE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN.**

La puntuación total se obtendrá como suma de las puntuaciones obtenidas en cada una de ellas. La Comisión de Valoración propondrá, al órgano convocante una prelación para que pueda tomarse la resolución que se adopte en base al nombramiento de libre designación, al amparo de las prescripciones del art. 46 de la ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

***Bederatzigarrena. MEREZIMENDUAK ETA BETEKIZUNAK FROGATZEA.***

*Betekizunak, merezimenduak eta beste edozein datu, eskabide-orriak aurkezteko epearen azken egunekoak izango dira.*

*Interesdunek "curriculum vitae" agirian alegatuko dituzte merezimenduak, nahitaez aurkeztu beharko baitute eskabide orriarekin batera, eta ofizioz frogatuko dira, eskabide-orriari ziurtagiria erantsiz, lehenagotik Ermuko Udalean dagoen espediente pertsonalean agiri bidez jasota daudenean bakar bakarrik.*

*Horretarako, eskabide-orriak aurkezteko*

**Novena.- JUSTIFICACIÓN DE MÉRITOS Y REQUISITOS**

Los requisitos, méritos y cualesquiera otros datos deberán estar referidos al último día del plazo para la presentación de solicitudes.

Los méritos se alegarán por los interesados en el "curriculum vitae" que se acompañará necesariamente a la solicitud, y solamente se justificarán de oficio, mediante incorporación de la correspondiente certificación a la solicitud formulada, en el caso de que exista constancia documental en el propio expediente personal en el Ayuntamiento de Ermua.

A tal efecto, dentro del plazo de presentación

*epean interesdunek beraien espediente pertsonala kontsultatu ahal izango dute espedientean dauden agiriak egiaztatzeko, eta, behar denean, bidezkotzat jotzen dituzten ikasketa-titulu, ikastaro, esperientzia-egiaztagiri eta bestelako meritu guztiak ekarri ahal izango dituzte, ziurtagiri, diploma, egiaztagiri edo onartutako beste edozein bitartekoz frogatuz.*

*Edozelan ere, Ermuko Udaleko lanpostuetako esperientziari buruzko ziurtagiriak Udalak berak egin beharko ditu, bidezkotzat jotzen diren egiaztagiriak ikusita, eta emandako zerbitzuen denbora eta esperientzia-eremua aipatuz.*

*Aken erabakia, alkateak egin beharko duen izendapen-proposamenarekin batera, udal web orrian argitaratuko da, eta horixe izango da interesdunentzako jakinarazpena, behar diren ondorio guztietarako.*

***Hamargarrena. JABETZA HARTZEKO EPEAK.***

*Lanpostu berriaz jabetzeko epea HAMAR (10) lanegunekoa izango da, azken erabakia udal web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.*

***Hamaikagarrena. GORABEHERAK.***

*Balorazio Batzordeak ahalmena izango du oinarri-arau hauetan jasotzen ez diren gai guztien inguruko zalantzak ebazteko eta deialdia behar bezala joan dadin behar diren erabakiak hartzeko*

***Hamabigarrena. ERREKURTSOAK ETA AURKARATZEAK.***

*Deialdi hau berau argitaratu eta hilabeteko epean Ermuko alkatearen aurrean aurkaratu ahal izango da, horretarako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta*

de solicitudes podrán consultar los interesados su expediente personal para comprobar la documentación que obra en el mismo, aportando, en su caso, las titulaciones académicas, cursos, acreditación de experiencia y cualesquiera otros méritos que se estime oportunos a través de certificación, diploma, justificante o cualquier otro medio admitido.

En todo caso, las certificaciones referidas a experiencia en puestos de trabajo del Ayuntamiento de Ermua, deberán ser expedidas por el propio Ayuntamiento, a la vista de las justificaciones o comprobantes que se consideren oportunos, y se referirán al tiempo de servicios prestados y área de experiencia en que se encuadran.

La Resolución definitiva, con la propuesta de nombramiento que corresponderá a Alcaldía, se publicará en la página web del Ayuntamiento sirviendo de notificación a los/as interesados/as, a los efectos correspondientes.

**Décima. PLAZOS DE TOMA DE POSESIÓN.**

El plazo para tomar posesión del nuevo destino será de DIEZ (10) días hábiles, contados a partir del siguiente a la publicación de la resolución definitiva en la página web del Ayuntamiento.

**Undécima. INCIDENCIAS.**

La Comisión de Valoración queda facultada para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden de la convocatoria en todo lo no previsto en estas Bases.

**Decimosegunda.- RECURSOS E IMPUGNACIONES.**

La presente convocatoria podrá ser impugnada, ante el Alcalde de Ermua, en el plazo de un mes tras su publicación, mediante el recurso potestativo de

*Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116 eta 117 artikuluetan aipatzen den aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztuz. Horrez gain, behar denean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da deialdia argitaratu eta bi hilabeteko epean, hala ezartzen baitu Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998ko Legeak.*

*Gainera, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean interesdunek deialdi honetatik eratortzen diren egintza guztiak ere aurkaratu ahal izango dituzte Ermuko alkatearen aurrean, hala ezartzen baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114 eta 115 artikuluetan.*

*Ermuan, 2016ko irailaren 1ean.*

ALKATEAk

reposición prescrito por los arts. 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o, en su caso, mediante recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses tras su publicación, de conformidad con lo establecido por la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Asimismo, cuantos actos dimanen de esta convocatoria podrán ser impugnados por los interesados, ante el Alcalde de Ermua, en el plazo de un mes tras su publicación, mediante el recurso de alzada prescrito por los arts. 114 y 115 de la citada Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Ermua, a 1 de septiembre de 2016.

EL ALCALDE

Fdo./*Sin.:* Carlos Totorika Izagirre

ANEXO / ERANSKINA

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
*ERMUA HIRIKO UDALA*

**CONCURSO ESPECÍFICO**

***BERARIAZKO LEHIAKETA***

**SOLICITUD CONCURSO ESPECÍFICO**

***ESKABIDEA: BERARIAZKO LEHIAKETA***

## SOLICITANTE / *ESKATZAILEA*

| Nombre y apellidos/*Izen-abizenak* | DNI-CIF/*NA* | | Puesto/*Lanpostua* |
|---|---|---|---|
| Domicilio/*Helbidea* | CP/*PK* | Municipio/*Udalerria* | Tfno./*Tfnoa.* |
| | | | |
| Dirección electrónica /*Helbide elektronikoa*: | | | |

## EUSKERA / *EUSKARA*

Posee certificado de PL?/*HEren ziurtagiririk badu?*

☐ No/*Ez* ☐ 1 ☐ 2 (B2) ☐ 3 (C1) ☐ EGA ☐ 4 (C2)

## FORMACIÓN ACADÉMICA / *IKASKETAK*

| Título/*Titulua* |
|---|
| |
| |

## OTRA FORMACIÓN ACADÉMICA / *BESTE IKASKETA BATZUK*

| Curso/*Ikastaro* |
|---|
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |
| |

## EXPERIENCIA / *LAN-ESPERIENTZIA*

| Puesto/*Lanpostua* | Tiempo/*Denbora* |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

**CONCURSO ESPECÍFICO**

***BERARIAZKO LEHIAKETA***

| | |
|---|---|
| | |

## OTROS MÉRITOS SEGÚN LAS BASES / *OINARRIEN ARABERAKO BESTE MEREZIMENDUAK*

| Descripción/*Deskribapena* | |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

## CORREO ELECTRÓNICO/*POSTA ELEKTRONIKOA*

***Baimena ematen diot*** *Ermua Hiriko Udalari honako eskabidearen inguruan niri ukitzen didaten administrazio-egintzak posta elektronikoaren bidez komunikatzeko, dokumentazioa elkartrukatzeko eta jakinarazpenak egiteko, horrek balio fede-emaile eta frogatzaile osoa izanik. Horretarako, hona nire posta elektronikoaren helbidea:* ☐

**Autorizo** al Ayuntamiento de la Villa de Ermua al uso del correo electrónico como canal de comunicación, intercambio de documentación y notificación con pleno valor fehaciente y probatorio de cuantos actos administrativos me afecten en relación a la presente solicitud, mediante la utilización de la dirección de correo electrónico siguiente.

## AUTORIZACIÓN DE COMUNICACIÓN DE DATOS PERSONALES/*DATU PERTSONALAK KOMUNIKATZEKO BAIMENA*

***Baimena ematen diot*** *Ermua Hiriko Udalari hautapen-prozedura honetan parte hartzearen ondorioz lortutako nire datu pertsonalak beste administrazio batzuei komunikatzeko, haiek etorkizunean eskain ditzaketen enplegu eskaintzetan parte hartzeko aukera izateko bakar-bakarrik.* ☐

**Autorizo** al Ayuntamiento de la Villa de Ermua la comunicación de mis datos personales obtenidos a partir de mi participación en este proceso selectivo, a otras administraciones públicas con la exclusiva finalidad de participar en las ofertas de empleo de similares carecterísticas que convoquen dichas administraciones.

## DECLARACIÓN / *ADIERAZPENA*

*Dokumentu honetan jasotzen diren datuak egiazkoak direla eta oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ditudala adierazten dut; halaber eskatzen zaidan momentuan agiri bidez egiaztatuko ditudala hitz ematen dut.*

Son ciertos los datos consignados en este documento y reúno las condiciones exigidas en las bases, comprometiéndome a acreditarlas fehacientemente en el momento en que me sean requeridas.

Firma/*Sinadura*

Fecha/*Data*

*Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz, lasai egon eta seguru senti zaitezen, honakoaren bitartez adierazten dizugu dokumentu honetan eman*

Para su tranquilidad y seguridad le informamos de que, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, los datos de carácter personal obtenidos en

*dizkiguzun datu pertsonalak IDAZKARITZAKO ESPEDIENTEAK delako fitxategi batean jasoko direla eta fitxategi horren arduraduna Ermua Hiriko Udala dela, zeinak Valdespinaren Markesa 1. 48260 Ermuan helbidea duen. Administrazioko agiriak gestionatzea helburu duen fitxategi hori Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi zaio, hortaz, behar diren neurri guztiak ditu datuen segurtasuna bermatzeko.*

*Hori horrela, honako dokumentua sinatzeak esan nahi du eskatzailea jakinaren gainean dagoela eta baimena ematen duela bere datuak aipatutako helburuarekin tratatzeko.*

*Gogorazten dizugu aukera daukazula emandako datuak eskuratzeko edo, behar izanez gero, aipaturiko legean ezarritakoaren arabera zuzenketak, kontrakotasuna edo deuseztapena eskatzeko. Horretarako, idatzizko komunikazio bat bidali beharko diozu adierazitako helbidera Ermua Hiriko Udaleko Segurtasun Arduradunari ondorengo datuak jasoz: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.*

*Erosoago gerta dakizun, udal web orriaren bitartez ere egikari dezakezu eskubide hori, honako helbidean: www.ermua.es>Abiapuntu>Udal kudeaketak.*
*Halaber, eskatzaileak adierazten du emandako informazioa egiazkoa dela eta ez duela berarentzat kaltegarria gerta litekeen informaziorik gorde edo aldatu, eta badakiela daturen bat eman ez edo egiazkoa ez izateak zerbitzua behar bezala ez jasotzea ekar liezaiokeela.*

el presente documento serán recogidos en un fichero denominado "EXPEDIENTES DE SECRETARÍA", del que es responsable el Ayuntamiento de la Villa de Ermua, con domicilio en Marqués de Valdespina 1- 48260 Ermua (Bizkaia). Este fichero, que tiene como finalidad la gestión de la documentación administrativa, ha sido notificado a la Agencia Vasca de Protección de Datos y cuenta con las medidas de seguridad necesarias para garantizar la total seguridad de los datos.
En cualquier caso, la suscripción de este documento implica que la persona solicitante resulta informada y da su consentimiento al tratamiento de sus datos para la finalidad mencionada.
Le recordamos la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos por la Ley indicada, dirigiendo una comunicación escrita al Responsable de Seguridad del Ayuntamiento de la Villa de Ermua a la dirección antes indicada con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.
Para su comodidad, puede ejercer estos mismos derechos a través de la web municipal en la dirección siguiente: www.ermua.es>Abiapuntu>Trámites municipales.
Por otra parte, la persona solicitante manifiesta que la información facilitada es cierta y que no ha sido omitida o alterada ninguna información que pudiera ser desfavorable para la misma, quedando informada de que la falsedad u omisión de algún dato supondrá la imposibilidad de prestar correctamente el servicio.